Getxo >MEETING<



Azaroak 5

Eskaintzen duzuna ulertzen da? Zure webgunea, Instagrama edo LinkedIna zure ikusleen ikuspegitik

Getxo MEETINGeko saio honetan gure webguneak aztertu ditugu taldean eta errespetuzko *feedbacka* eman diogu elkarri.

Ariketari esker ikusi ahal izan dugu gure webgunera lehen aldiz iristen den pertsona batek zer ulertzen duen eta zer azaldu behar dugun hobeto. Negozioaren barruan oso ondo ezagutzen dugu zer egiten dugun; ondorioz, erraza da bisitatzen gaituen pertsonak irakurri behar dituen gauzak jakintzat ematea.

Hasteko bi galdera Zer da hau? Niretzako da? Ikusi dugu webgune baten hasierako pantailak, Instagram edo LinkedIn profil batek bezala, galdera horiek erantzuten lagundu behar duela. Horretarako, komeni da hitz errazekin azaltzea zer eskaintzen dugun, nori zuzentzen zaion eta zer behar dugun.

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica
Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140
getxolan@getxo.eus • ***https://www.getxo.eus/es/promocion-economica/***

Jarrai gaitzazu: /Síguenos en:

Aukeratu nori hitz egingo diogun lehenbizi Lehentasunezko publiko baten alde egiteaz hitz egin dugu. Erabaki horrek tonua, adibideak eta erabiltzen ditugun irudiak bideratzen ditu. Publiko horrek ezagutzen dituen pertsonak eta egoerak erakusten baditugu, errazago ulertuko du nola egokitzen den gure proposamena bere egunerokoan. Gainerako publikoak ere bere lekua izan dezake webgunean.

Bisitariak bilatzen duena aintzat hartuta ordenatu informazioa Nabarmendu dugu garrantzitsua dela izenburu argiak erabiliz edukiak multzokatzea, bai eta lehenengo eman behar diren erantzunak lehenestea ere Adibidez, azaldu zerbitzu bat zertan datzan eta norentzat den prozesuaren xehetasun guztietan sartu aurretik.

Berridatzi aurretik, entzun Egiaztatu dugu garrantzitsua dela benetako pertsonei eskatzea gure webgunea aztertu dezaten eta hauexek adierazi diezazkiguten: Zer ulertu duten, non egin duten zalantza eta zer informazioren falta nabaritu duten.. Haien arazoak nola deskribatzen dituzten entzuteak ere hitz zehatzagoak ematen dizkigu eskaintzen duguna azaltzeko.

Praktikara eramateko modu bat hau izan daiteke: zure publikoko norbaiti eskatu hasierako orrialdea begiratzeko eta bere hitzekin zer eta norentzat eskaintzen duzun azaltzeko. Haren erantzunak lehenik zer argitu behar duzun erabakitzen lagunduko dizu.